

2019.10.31 PRENTSA OHARRA

Gaur aurkeztuko dute Argentinako Amale Artetxe Katedra

- Etxepare Euskal Institutuak CONICET erakundearekin duen hitzarmenaren bidez sortu da; aurtengo egitarauak arlo kulturala eta akademikoa biltzen ditu.
- Aurkezpen ekitaldian Etxepare Euskal Institutuko, CONICETeko eta Buenos Airesko Unibertsitateko kideez gain, Amale Artetxeren sendia ere izango da, eta omenaldi bat egingo zaio.

Gaur aurkeztuko da Etxepare Euskal Institutuak eta Argentinako CONICET erakundeak (Consejo Nacional de Investigaciones Científicas y Técnicas) hitzarmen bidez sortutako **Amale Artetxe Katedra**. Institutuak munduan zeharreko Unibertsitate esanguratsuenetan kudeatzen dituen Katedretatik bederatzigarrena da hau, eta Argentinan **arlo akademikoan euskal kulturari buruzko giza zientzia ikasketak eta ikerketak sustatzeko helburua** du.

Aurkezpen ekitaldia Buenos Airesko San Martin kultur-gunean izango da gaur arratsaldeko 19:30ean. Bertan, Etxepare Euskal Institutuko **zuzendari Irene Larraza**, CONICETeko Historia eta Giza Zientzien Diziplina Anitzeko Institutuko (IMHICIHU) **Ariel Guance**, Buenos Airesko Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultateko Nazioarteko eta Erakunde arteko Harremanetarako eta Transferentziarako Idazkari **Silvana Campanini**, eta **Amale Artetxeren senideak** izango dira. Ekitaldia bi zatitan banatuko da: lehen zatian Katedraren aurkezpena egingo dute Larrazak, Guancek eta Campaninik; eta, bigarreanean, omenaldia egingo zaio Amale Artetxeri, bere senideei aitortza eginez.

Amale Artetxe (Bilbo, 1894 – Buenos Aires, 1986) Emakume Abertzaleen Batza (EAB) erakundearen sortzaile eta lehenbiziko lehendakaria izan zen. Erakunde horretan lan handia egin zuen euskal kulturaren transmisioan, euskal dantza

taldeak sortzen edota Euskal Herriaren historiari buruzko ikastaroak antolatzen, besteak beste. Horrez gain, eta bereziki, eragin handia izan zuen Artetxek Argentinako euskal emakumeen kolektiboaren ahalduntzean.

Ekintzaz beteriko egitaraua

Katedraren egitaraua urriaren 21tik dago martxan, eta bi arlotan dago banatua: **egitarau akademikoa** eta **egitarau kulturala**.

Arlo akademikoari dagokionez, Amale Artetxe Katedraren lehen urte honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko Santiago de Pablo historialari aditua izan da irakasle gonbidatua. Urriaren 21etik 31ra bitarte, de Pablok “Estado y Nación en el País Vasco contemporáneo: los caminos de la identidad” (Estatua eta nazioa Euskal Herrian: identitatearen bideak) 16 orduko doktorego-mintegia eskaini du Buenos Airesko Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultatean. Mintegiak euskal nazionalismoaren bilakaera izan du ardatz, XIX mendean sortu zenetik gaur egun arte.

Horrez gain, urriaren 22an, asteartea, hitzaldi ireki bat eman zuen de Pablok “Los vascos y el cine: entre el estereotipo y la lucha por la identidad” (Euskaldunak eta zinema: estereotipoaren eta identitatearen borrokaren artean) izenburupean. Azkenik, gaur bertan, urriak 31, beste hitzaldi ireki bat izan da, kasu honetan de Pabloren eta CONICETeko, Buenos Airesko Unibertsitateko eta Tres de Febrero Unibertsitateko ikertzaileen presentziarekin. Hitzaldiak, “El combate por la memoria en el País Vasco: de la Guerra Civil a la actualidad” izenez, memoria historikoa eta Espainiako Gerra Zibila izan ditu ardatz.

Katedraren lehen urtea izanik, aurtengo egitarauak **kultur ekitaldiak** ere eskaini ditu. Ekintzak urriaren 30ean hasi ziren, *Dantza* filmeko Gari Otamendi dantzari protagonistak eta Telmo Esnal zuzendariak Buenos Airesko Laurak Bat Euskal Etxean eman zuten dantza tailerrarekin. Halaber, urriaren 31n, gaur, beste ekitaldi esanguratsu bat izango da Aurkezpen ekitaldiaren ostean: *Dantza* filmaren emanaldia izango da eta, ondoren, Esnal eta Otamendiren presentziarekin, galderetarako eta eztabaidarako tartea ere izango da.

Beste katedra batzuk ere martxan

Etxepare Euskal Institutuak beste zortzi katedra ditu munduan zeharreko Unibertsitateetan, eta horietako batzuk ere udazken honetan izan dute dagokien programa. Batetik, Massachusetts-Amherst Unibertsitateko (AEB) William Douglass Katedrara Ane Ortega hizkuntzalaria izan da gonbidatua, eta bi hitzaldi eskaini ditu urriaren 28an eta 29an, euskararen erabileraren suspertze-estrategiak eta hizkuntza indigenekin egindako elkarlana hizketagai.

Halaber, Nevada-Renoko Unibertsitatean (AEB) egoitza duen Jon Bilbao Katedrak aurtengoan Óscar Álvarez Gila hautatu du ikertzaile gonbidatu. Deialdi ireki bidez hautatutako proiektua garatuz, Estatu Batuetako zinema eta telebistak, 1916 urtetik 2016 urtera bitarte, Euskal Herria eta euskal immigrazioa nola irudikatu dituen aztertuko du.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus